

**HISTORIA GABEKO HISTORIA,  
ENTSAIO ETNOLOGIKO-HISTORIKOA  
(ATAUNGO BI KONTUZAHAR, BARANDIARANEK ETA  
ARRATIBELEK JASOAK)**

Egile: **JOXEMARTIN APALATEGI BEGIRISTAIN**, Donostiko Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Antropologia Kulturalako irakaslea (Euskal Herriko Unibertsitatea).

**ESKEINTZA:**

Barandiaran Joxemiel etnologo doktoreari eta Arratibel Joxe lekaideari, ahozko herri produkzioaren bilketa ezin hobeagoagatik.

Ataundar bi hauei beste ataundar batek.

## 1. ATAUNGO BI KONTUZAHAR

Oraingoan, Barandiaranek jasotako kontuzahar bat eta Arratibelek jasotako beste bat aztertuko ditut.

Barandiaranek jasotako kontuzaharraren izenburua honelaxe da: «Kanillo arrantzalea ta kanillo-txiki». Kontuzahar hau gazteleratuta dauka Barandiaranek, ondoko izenburua daukela: «Canillo el pescador y Canillo el chico». Kontuzaharraren amaieran hauxe gehitzen du ataundarrak: «Contado en 1922 por María de Barandiarán, de Ataún». Kontuzaharra Barandiaranen OBRAS COMPLETASetik hartu dut, 2. tomoa, La Gran Enciclopedia Vasca-Retanak argitaratua, Bilbon 1973an, 301-305 orrialde bitartean. Barandiaran Maria, etnologoaren hiloba da, 74 urtekoa, Ataungo Gregorio Sainduko Perunezarre baserrian jaio eta bizi da (Barandiaran Joxe Miel ere baserri hortantxe jaio eta hazi izan zen).

Arratibel lekaideak jasotako kontuzaharraren izenburua, berriz, honelaxe da: «Etsai zaarra ta mendiko leoia». Kontuzahar hau neronek gazteleratuta daukat, ondoko izenburuarekin: «El viejo diablo y el león de la montaña». Kontuzaharra, Arratibel lekaideak (egun Estibalizko lekaidetxean bizi da) argitaratutako liburutik hartu dut: «Kontu Zaarrak», Bilbon 1980an, 65-74 orrialde bitartean, La Gran Enciclopedia Vasca-Retanak argitaratua. Denetara, 22 kontuzahar ematen digu Arratibel biltzailak, amaitengandik eta bere jaiotauzoan, Ergonen (Ataungo Gregorio Sainduan), entzun zituen bezalaxe, orain 53 eta 43 bat urte bitartean.

Joan zen ikasturtean, 1980-81an, euskal antropologiaz mintegia eman nuen Donostiko Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Antropologia Kulturalako Departamentuan, Zorroagan. Kontuzaharren azterketarekin

jardun nintzen denbora luzez, besteak beste. Ataungoak, batipat, nituen kontutan. Bide hartatik barnerantzago joz eskaintzen dut gaurko entsaio etnologikohistorikoa.

Eta eskuartean aurkezten ditudan bi kontuzahar hauek nola aukeratu ditut Ihardunaldi Antropologiko hauetarako? Ez dago arrazoi nagusirik beste edozein bikote bat baino lehenago bi hauek lehentasunaz aukeratzeko. Aukeraketarako, puntu batetan bakarrik jarri dut lehentasun kriterioa: aztertu nahi nituen kontuzaharrak aldakinak izan behar zuten, nahitaez.

Arratibelen «Etsai zaarra ta mendiko leoia» kontuzaharraren amaieran, 74. o.an, honelaxe irakur daiteke: «D. Joxe Migel Barandiaranek badakar kontu zaar onen eratsuko beste bat: «Canillo arrantzalea ta Canillo-Txiki». Obras Completas, Tomo II, pág. 301. Duela hilabete gutxi, kontuzahar bi hauetaz mintzatu nintzaion Barandiarani bere Ataungo Gregorio Sainduko etxean, Saran. Bat zetorren nere azterketarekin. Guzti honexegatik aurkezten dut Ihardunaldi honetan entsaio hau, gaurrate ia eginda ditudan beste askoren artetik aukeratua.

## 2. BARANDIARANEN KONTUZAHAR BAT: «KANILLO ARRANTZALEA TA KANILLO-TXIKI»

Nahiz oraingoan, Barandiaranenean, nahiz ondorengoan, Arratibeleanean, hiru puntu emango da azterketarako.

### 2.1. HIRU FAMILIAK

Kontuzaharrean hiru familia agertzen da. Familia bakoitzak zeregin konkreto bat dauka kontaktetan. Zeintzu dira hiru familiak eta berauen zereginak?

#### *Lehenengo familia eta bere zeregina*

Kanillo arrantzalea eta Kanillotxikiaren familia da lehenengo familia. Zergatik da lehenengo familia bera? Bere zereginagatik. Kontuzaharrak kontatzen duen hari nagusiaren heroea familia honetan bizi da, eta Kanillotxiki da delako heroea.

#### *Bigarrenengo familia eta bere zeregina*

Bigarren familia, zein da? Bixiguarena, hau da, deabruaren familia. Beronen zeregina, berriz, zein da? Antiheroearena.

#### *Hirugarrenengo familia eta bere zeregina*

Iparrarremendiko familia da hirugarren familia. Zein da bere zeregin-ña? Heroearen eta antiheroearen laguntzaileena.

Hiru familia, beraz, agertzen zaigu kontuzaharrean. Familia konposaketa desberdina da hiruretan, zeregina den bezalaxe. Aztergai litzateke fa-

milia konposaketa hiru familietan. Halere, ez natzaio atxekiko aztergaiari entsaio honetan.

Kontuzaharrak, kontaketa eskema argi eta garbi agertzen digu, berau trinarioa delarik: heroearen familia, lehenengoa; antiheroearen familia, bigarrenkoa; eta heroe eta antiheroearen laguntzaileen familia, hirugarrena. Lehenengoa eta bigarrenkoa errex ikus daitezke. Hirugarrenkoa, familia berbera izanik, bikoitza da: batzutan, «Iparáremendia» deituriko tokiko «deabru'atek» antiheroearen laguntzaileak hain zuzen, jasoko du hirugarren familiaren laguntasuna; bestatzutan, aldiz, familia honen laguntasuna familia bertara heldu den morroiak eskuratuko du. Hirugarren familia, eskema binarioari jarraitu nahiko balitzai, kuntzetat edo bisagratzat emango litzateke, familia honetantxe, izan ere, esaten baitugu kontuzaharrak kontaketaren puntu gorena.

Kontuzaharrak eskaintzen digun alderdi bakoitza aztertzeko ez daukat oraingo aldian ez denborarik ez eta aurretik eskeiniko zitzaidakeen eskaririk. Noan, bada orduan, alderdi hauetariko bat bistaratzera.

## 2.2. LEHEN FAMILIAKO SEMEA EDO MORROIAREN BIZIMODUA

Lehen familiaren berri gutxi ematen digu kontuzaharrak. Berdin beste familiez. Kontuzaharrak esan nahi diguna ez baita gai hori, beste bat baik: lehen familiako semearen bizimodua kontatu nahi digu kontuzaharrak.

Lehen familiako semea, Kanillotxiki, morroi joan beharrean aurkitzen da bere aitak apustua galdu duelako bixiguarekin. Kanillo arrantzalearen zorrak ordaintzeko nahitaezko gertatu da bere semea morroi bidaltzea akreedorearengana. Morroi izateaz mintzaten zaigu, beraz, zuzenzuzenean kontuzahar hau. Halere Arratibelen kontuzaharrak beste berri ez digu azaltzen Barandiaranenak morroiaren bizimoduaz. Bi kontuzaharren arteko aldeetarikoa bat da hori. Beranduago, ordea, lotuko gatzazkio bi kontaketen arteko antzatasunari eta desberdintasunari.

Bixiguaren, hau da, deabruaren etxean zer egiten du Kanillotxikik? Kontuzaharrak ez digu ia ezertxo ere aipatzen ondokoa izan ez ezik: «Gau batên bê etzanlekua zijôla», Kanillotxiki, «uste baño ots geiao nunbait atâ, ta deabrûk deadar eiñ ementzion ze, beiz geldi eote ez bazan, itxaso botako zôla». Berehalaxe hauxe eranstean du kontuzaharrak: «Eta bait e iñ ê. Atêkiñ eo ots pixka'at ata zôn besta gau batên, deabru ôrek artu ta itxasôn úrutia bota ementzôn» (302. o.).

Hara berriro ere, premia gorrian Kanillotxiki, ez lanik eta ez etxerik dituela. Itxasotik lurreratzean, harrigarritzko laguntza jasoko du beorraren banaketa gertakaria izenaz ezagutaratzen zaigun horretan. Kontaketaren une honetan alde handia nabari da bi kontuzaharren artean: Barandiaranenean sinbologiazko agerpide hau esaten den momentuan, Arratibelenean morroiak bere bostean aldegiten du baserritik, etxe hontako alabak eta biek burutu-

tako asmo batek eraginda, eta beste baserri batetarantz abiatzean inoren bitartekotasunik ezagutzen ez duelarik; Barandiaranenean, berriz, lehenxeago ikusi denez, morroia etxetik kanpora bialdua da eta harrigarritzko laguntasuna luzatzen zaio bere egoera larritik urten dadin. Aldakinen garrantzia bistako da!

Ondoren, bixiguaren, hau da, deabruaren ezhilkortasuna gainditzeko bidea ezagutzean, Iparrarremendiko baserrian sartuko da morrointzan. Oraingoan, eta lehenengo aldiz, esaten digu kontuzaharrak zein motatako lana duen morroiak: artzantza. Lanbide berrian, laster topatuko du bixiguaren anaia, mendiko larre hoberenetako jaun ta jabe dena, «gizon-piguran» agertzen zaiolarik. Hiru aldiz (Hiru zenbakia! Zenbakien garrantzia kontuzahar kontaketa teknikan!) burukatuko dute elkar, eta azkenengo saioan morroiak «gizon-piguran» agertzen zaion deabrua menderatzen du bere morroietzeko neskameak eskeinitako opila janaz gero.

Azkenik, Kanillotxiki bixiguaren etxera bihurtzen da «uso biurtuta», hots, era harrigarrian, ohi bezala, bixigua-deabrua hiltzera. Hau etxeondoko «intxaur-itzalên» etzan da lotan jari ementzan» kontatzen digu kontuzaharrak, ta «urdûn Kanillo-txikik, bêra jetxi, gizon biurtu ta deabrûri aîautzea bekokiñ erdia bota ementzion», horrela «deabrue ilda geatu ementzan» bizi zela bere neskameari azaldu zion era berberean, hain xuxen ere (304.o.).

Kanillotxiki berehalaxe etxeratzen da bixigudeabruaren etxetik. Aitak ez du berrezagutzen segidan bere semea, honek deabruaren etxera joan-beharra izan zuela aipatzen ez dion arte.

Besterik esatera ez nihoa bigarren puntu honetaz, hauxe izan ez ezik: hortxen erakusten digu kontuzaharrak Kanillotxikiren biografia gogorra, jaiotzetik kanporatua ezbehar bategatik (Zein? Geroago hortaz arituko naiz), morrontzan han eta hemen jarduna, heroe bilakatua eta etxeratzean aitarentzat ezetzagun dela bere burua ikusten duena.


### 2.3. HEROEA ETA ANTIHEROEAREN ARTEKO BURRUKA

Aurreko bi puntuak hirugarrenengo honetan txertatzen dira. Oraingoarekin, azkenengoa izanik, enborrera heldu gara. Honen adarrez ez naiz arduratzen entsaioan, aipamen gisa izan ez ezik, zeren eta lanagerpidearen muga bera baita, lehenago ere esan. dudan bezala. Horregatik, ba, enborraren edertasun osoa ezin azaldu izango dut gaurkoan.

Bi heroe eta bi antiheroe dauzkagu kontuzaharrean, nahiz eta orainartean bakoitzetik bat bakarrik balego bezala aritu izan naizen. Fun-tsean, hori bai!, heroe bat eta antiheroe bat dagoela esango dut. Nortzu dira guztiak?

Bi heroeak, Kanillo eta Kanillotxiki dira. Bi antiheroeak, bixigudeabrua eta gizonfigurako deabrua. Halere, heroeak eta antiheroeak bereiztu egin behar elkarrengandik. Heroen artean, nagusia Kanillotxiki da eta

txikiena Kanillo; eta antiheroe nagusia bixigudeabrua da, txikiena gizonfigurako bere anaia deabrua izanik. Lau pertsonaia hauen arteko erlazioen taula hauxe litzateke grafikoki esanda:



### GRAFIKO 1

Pertsonaien funtzionamendu soziala Kontuzaharrean

Leienda

- = Heroe Nagusia: semea, morroi dena, Kanillotxiki.
- H.N. = Heroe Txikia: aita, Kanillo.
- H. Tx. = Antiheroe Nagusia: anaia, bixigudeabrua.
- A.N. = Antiheroe Txikia: anaia, gizonfigurakodeabrua.
- A = Erlazio sozial moeta nagusia.
- B = Erlazio sozial moeta txikiena.
- O = Erlazio sozialen gurutzaketa erdigunea.
- + = Erlazio zentzua positibo denean.
- - = Erlazio zentzua negatibo denean.
- x = Arraia bikoitza garaila da arraia arruntarekin sozialki topatzerakoan.

Kontuzaharreko gizarte funtzionamenduari buruz eman dudan grafikoa ez da erabatekoa, bai ordea garrantzitsuena nere ustez kaso honetan. Azter dezagun grafikoa.

Bi eratako arazoak aipatzen dizkigu kontuzaharrak, eta grafikoa ere bi eratakoak azaltzen dira: ahaidegoarena eta erlazio sozialena. Lehen-

goak barneko erlaziotzat jo ditut, eta bigarrenagoak kanpokotzat. Izan ere, ahaidego arteko erlazioak kanpokoen aldean beste modu batera sortzen, soluzionatzen dira ahaidetasunezko arrazoi bategatik. Bestalde gertatzen da kanpoko erlazioekin. Horren berri bisuala ederki ematen digu goian aipatutako grafikoak (Grafiko 1). Ahaidego bien artean, ordea, badago desberdintasun handi bat, eta zera da: heroe nagusiak (semea) ez du jasotzen mesederik heroe txikiarengandik (aita), eta, aldiz, antiheroe nagusienak (bixigudeabrua) jasotzen du antiheroe txikiarengandik (gizonfigurakodeabrua). Nagusitasuna beti ez da orokorra, hau da, ahaidegoan nagusi dena beti ez da agintaritzan. Aita-seme ahaidegoan, barnean nagusi dena (aitagatik dihoa morrointzara semea) kanpoan menpeko da (semeak menperatuko du aitak menperatu ez duen bixigudeabrua). Anaia ahaidegoan, berriz, barnean eta kanpoan beti pertsonia berbera da nagusi, hau da, bixigudeabrua. Zergatik aldakuntza hori? Oraintxe heldu diogu giarretik kontuzaharraren adarretariko bati, deabruzko munduari alegia. Era-kutsi besterik ez dut egiten adar hau, bere azterketa alde batera utziz entsaio honetan.

Grafikoa 1-k dion bezala, ahaidego bien arteko erlazioa erabatekoa eta gurutzatua da, semea eta bixigudeabruaren kasoan izan ez ezik. Agin-duen mailan, erlazioak gurutzatuak dira; eta zuzenak, agintari mailan. Horregatik bereizten dut bitan kanpoko erlazio eremua: A eta B sailetan. Nola uler genitzake maila biok? Maila zuzenak nahiko luke esan erlazio horretan arazoa bistan gelditzen dela. Maila gurutzatuak, berriz, erlazio horretan arazoa izkutuan gelditzen dela. Kontuzaharra aita eta bixigudeabruaren arteko erlazioarekin hasten da, baina erlazio hori ez da arazo nagusienaren beste agerpen bat baizik. Zein? Semea eta bixigudeabruaren arteko erlazioa. Honen froga nabarmenagoa gero ekarriko digu azterketak.

Lehen azpimarkatu dudan bezala, Grafiko 1 ez da nahikoa kontuzaharreko erlazio guztiak ezagutarazteko, besterik baizik, nahiz eta grafiko lkoak izan kontuzaharreko nagusienak.

Horrela, heroe eta antiheroe bakoitzak bere laguntzaileak dauzka, ondorengo grafikoetan ikus daitekeenez:

NORK	NORENGANDIK/I	LAGUNTZA ERA
HEROE NAGUSIAREN LAGUNTZAILEAK (morroia)	{ Lehoia Usoa Txingurria	EPAILARI - +
	{ Neskamea (Bixigudeabruaren -)	ZELATARI +
	{ Neskamea (Iparrarremendiko (etxeko -)	LANKIDE (AMESLARI) +
	{ Aita, Kanillo	SENTARTEKO +

## GRAFIKO 2

Heroe nagusiaren eta bere laguntzaileen arteko harreman moduak

NORK	NORENGANDIK/-I	LAGUNTZA ERA
ANTIHEROE NAGUSIAREN LAGUNTZAILEAK (bixigudeabrua)	} Kanillo	ESKALE - +
	{ Kanillotxiki (Morroia)	UGAZABA MORROI
	} Neskamea	UGAZABA, NESKAME
	{ Gizonfigurako deabrua (anaia)	SENTARTEKO +

### GRAFIKO 3

Antiheroe nagusiaren eta bere laguntzaileen arteko harreman moduak

Laguntza era asko bereiztu ditut eta guztiak bi sailetan banatu: positiboak, pertsoaiak laguntza jasotzen duenean; negatiboak, pertsonaiak laguntza hartzen (edo desiratzen) ez duenean. Grafiko hauekin (2 eta 3) kontuzaharraren kontaketa teknika asko iratzarri dut, hortaz, ordea, entsaio honetan ez naiz arituko zuzenezuean. Noiz positibo, noiz negatibo, ala noiz biak batera jakitea ez zait hain errex gaur oraindik. Datorrengo azterketatan argitzen joango naiz arazo hau eta bestatzu. Grafiko 2an, epailari - eta + jarri dut, eta grafiko 3ko eskale laguntza era ere. Izan ere, laguntza eman eta berehalaxe beste bat eskuratzen du emaleak. Gaineantziko laguntza eretan horrelakorik ez da gertatzen, hau da, zeinu bateko laguntza erari kontrakoak ez dio jarraitzen berehalaxe kontaktari heretsiki bagagokio. Berriz ere, ordea, lehengoa diot, arazo hau nahiz bestatzu datorrengo azterketatan sakondu eta gaindutu beharko ditut.

Heroe eta antiheroe nagusiekin egin den gauza berbera egin liteke heroe eta antiheroe txiekin:

NORK	NORENGANDIK/-I	LAGUNTZA ERA
HEROE TXIKIAREN LAGUNTZAILEAK (Kanillo)	Bixigudeabrua	{ HARTZAILE + { APOSTULARI -
	Kanillotxiki	ETXEKOJAUN +
	Kanillotxiki	ETXEKOJAUN ?

### GRAFIKO 4

Heroe txikiaren eta bere laguntzaileen arteko harreman moduak

NORK	NORENGANDIK/-I	LAGUNTZA ERA
ANTIHEROE TXIKIAREN LAGUNTZAILEAK (gizonfigurako gizona)	Iparrarremendiko etxeokak	MENPEKO +
	Bixigudeabrua	SENTARTEKO - (AMESLARI)

### GRAFIKO 5

Antiheroe txikiaren eta bere laguntzaileen arteko harreman moduak



Grafiko 4an, haxe idatzi dut «ETXEKOJAUN». Zergatik? Ez dut erantzungo oraingoz, hortxe baitago kontuzaharraren muina. Semea, Kanillotxiki, kanporatua da aita apostulariagatik. Halere, kanpoan aldia egin ondoren, etxeratu egiten da berriro Kanillotxiki eta aitak ez zuen gogo onez ikusi hasieran, gero, semeak apostua bergogoratu zionean, «pozik etheen artu ementzôn» (305.o.). Semearen joanetorri aldia da kontuzaharraren oinarria. Eta «ETXEKOJAUN» hori aurrerago erantzungo dut.

Orain diodan galdera zera da: zerk kontrajartzen ditu elkarri heroe nagusia eta antiheroe nagusia, heroe nagusia eta heroe txikia, antiheroe nagusia eta antiheroe txikia, heroe nagusia eta antiheroe txikia, heroe txikia eta antiheroe nagusia, zerk? Kontuan izan grafiko 1, hau guztia hantxe erakusten baita.

Baina galdera zuzenean erantzun beharrean, Arratibelen kontuzaharrari lehenik helduko diot. Aldakina daukagu, eta kontuzahar batek dioena besteak azpimarkatuko du, modu batera edo bestera. Arazoa berbera izanik, arazoa konpontzeko modua desberdina izan liteke. Bestalde, kontuzaharra esaterakoan ez da beti berdin esaten, kontuzaharlari-kontuzaharrentzule bikoteak bere bertsioa ematen duelako. Bikotea ez da inoiz axolagabea, kontuzaharraren premian dago beti, aldiz. Eta nik aztertzen ditudan bi kontuzahar hauek, elkarren artean aldakinak, heuren bertsioa ematen dute. Nolakoa da bakoitzarena? Goaz ikustera bigarren edo Arratibelen kontuzaharra. Barandiaranen kontuzaharra esan den tokitik Arratibelenera 3 km. daude. Bide hau, ordea, ezin da ulertu gaurko pentsamoldearen arabera, kontuzahar hauek esaten ziren garaikoerara baizik: Barandiaranena 1922an, eta Arratibelena 1927-38 bitartean. Hontaz, ondorengo puntu batetan mintzatuko naiz gehiago.

### 3. ARRATIBELEN KONTUZAHAR BAT:

#### «ETSAI ZAARRA TA MENDIKO LEOIA»

Hemen ere, Barandiaranenean bezala, hiru puntutan azalduko dut kontuzahar honi buruzko azterketa.

#### 3.1. HIRU FAMILIAK

Kontuzaharrak hiru familia aipatzen digu, eta familia bakoitzak zeregin konkretu bat burutzen du kontuzaharraren barnean. Zeintzu dira hirurak eta zereginak?

#### *Lehenengo familia eta bere zeregina*

Familia oso behartsuarena da lehenengo familia. Bertako semea da kontuzaharraren heroea. Eta kontaketakoa mamia familia honi dagokio oso osorik. Hara hor zergatik den lehen familia delako «famili bat oso bearsua» (65. o.) edo motillamorroiaren familia, heroearen familia alegia.

*Bigarren familia eta bere zeregina*

Gizonetsaizaharraren eta bere alabaren familia. Etsaizaharra da kontuzaharreko antiheroia, eta zeregin horretan barne ikusiko dugu beti familiako burua.

*Hirugarren familia eta bere zeregina*

Lehoia bizi zen mendiko familiarena da hirugarren eta azkenengo hau: ama alarguna eta bere alaba bizi direnena alegia. Eta familia honen zeregina zera litzateke: heroearen eta antiheroearen laguntzaile izatea.

## 3.2. LEHEN FAMILIAKO SEMEA EDO MORROIAREN BIZIMODUA

Berriz ere, lehen familia familia behartsua da. Bertako semea, Kani-lloxikiren antzera, etxetik kanpo joan beharrean aurkitzen da. Barandiaranenean apostu bat medio dela esaten zaigu gertakari hori, hemengoan, aldiz, hara zer dion semeak kanporatzerakoan:

«-Ni banoa emendik, ama,

-Noa umea? -erantzun zion amak erdi negarrez.

-Ez dakit, baño nolana ere emen ainean izango al naiz. Uste det laster azalduko naizela berriz» (65. o.).

Berehalaxe ohartzen da bat Arratibelenean kontaktaren mamia argi eta garbi azaltzen dela, estilo zuzenez egiten baita eta ez sinbolikoan Barandiaranenean bezala. Hark argitasunean irabaziz, esateko eran edo forman galtzen du; honek, alderantziz. Honen esanahia sinbologiazko eragatik zailagotu arren, harenaren esanahia zuzenagatik desestalia gelditzen da. Aldakinen garrantzia hortxe ikusten da. Arazoa, ordea, ez da hor amaitzen. Oraindik airean dagoen galderaren aurrean gaude: zergatik Barandiaranek erabiltzen du forma sinbolikoa, eta Arratibeenek forma zuzena? Hemen gelditzen da galdera, gerorako hain zuzen.

Motillamorroiaren (semea) berri asko azaltzen da kontuzaharrean, eta deskribapen honi esker garai batetako morrointzaren biografiaz asko dakigu. Puntu hau biziki azpimarkatzen dut. Entsaio etnologikohistoriko honetan oinarritu nahi dudana tesia zera da: kontuzaharra historia gabeko historia da, hein handi batetan, oraindik ere. Arratibelen morroiaren biografian kontuzaharra esaten zen garaiko (batipat) eta lehenagoko morrointzaren agerpidea ikus liteke; gaiñera, herriak, kontuzaharraz baliatuz, morrointzari bere pentsakeran zein garrantzia eman dio ikus liteke ere. Hau da, kontuzaharraren historia gabeko historian ez da esaten soil soilik gizarteko gertakari batzuei buruzko berria, are bere ahotan darabilena gizarteak zenbateraino aintzakotzat eduki duen. Etnologiaren bidez historia zabaldu eta osatu egiten da, esatebaterako, kontuzahar azterketa lekuko. Edozein gertakari sozialan aurrean ikuspegi asko sor daiteke. Esaera batek

dioen horixe, «zenbat buru hainbat aburu». Baserri eta arrantzerri artean historiari ez da falta; historia hori, ordea historiari gabe, dago maiz sarritan. Horretaz ari naiz azterketa honetan, hots, historia gabeko historia historiara ekarri behar dela eskatzen. Harri bedi nahi duena, lehen harritua historia gabeko historia horren egilea izango bait litzateke.

Kontuzahar bi hauen azterketan morrointza gai nagusitzat jotzen dudalarik, noan Arratibelen morroiaren deskribapena ikustera:

1. «Lur gutxi zuten eta orregatik bizi ziran estu estu» (65. o.).
2. «Motilla aspertu zan orrela bizitzen, eta noabait juatea erabaki zuan. Ta baita jua ere» (65. o.).
3. «Goiz batean» (65. o.).
4. «Iñori ezer esan gabe» (65. o.).
5. «Artu zuan pardeltxo bat, bear bearrezko jantzi batzuek an zituala» (65. o.).

«Ta bideak aurrera abiatu zan, noa zihoanik ere jakin gabe» (65. o.).

7. «Etxetik ateratzerakoan amari esan zion:

-Ni banoa emendik, ama.

-Noa umea? -erantzun zion amak erdi negarrez.

-Ez dakit, baño nolana ere emen aiñean izango al naiz. Uste det laister azalduko naizela berriz.

-Ala izan dedilla -erantzun zion amak. Eta orrela bata besteagan-dik apartatu ziran.» (65. o.)

8. «Motilla denbora askoan ibilli zan erri batetik bestera, iñun ere ez zegon lanik arentzat.» (65. o.)

9. Baño bizi bear, ta zerbait jango bazuen, batzuetan lan gogorak egitea beartua arkitzen zan. Majinabat lanklase probatu zituan: artzai, itzai, ikazkin, argin eta beste asko, baño beiñere ez bere gustokorik. Danetan bereala aspertzen zan.» (65-66 ok)

10. «Azkenean...

.....

-Emen neretzat lanik ote daukazuten edo etorri naiz -erantzun zion motillak, burua makurtuaz.

-Lana obeto zegok emen besterik baño -erantzun zion nagusiak-. Ta, ik, zer lanetan dakik?

-Nikk... -erantzun zion motillak- ori probatuta gero esango didazu.

-Ondo zegok. Taa... zenbat soldata eskatzen edoo... -esan zion gizon zakar arek.

-Ez dakit bada... Ori lanak erakutsi du, ez? -erantzun zion motillak, burua gora jasoaz.

-Ondo zegok, ondo zegok, gelditu ari emen, taaa... lanik eta janik ez zak paltako.» (66-67 ok.)

11. «Morroia ta bere alaba elkarrekin ondo etortzen zirala antz eman zuanean, etsai zaarrak morroia etxetik botatzea erabaki zuan, naiz eta langille ona izan eta bearrezkoa.» (67. o.)

12. «Bien artean, etsai zaar ura nola edo ala iltzea erabaki zuten. Baño, etsai zaarra izanda, nola ill?» (67. o.)

13. «Bazkaria bukatu orduko, motilla igo zan piku gaiñera, ta an ondo izkutatuta jarri zan. Etsai zaarra eta bere alaba ere etorri ziran aulkian esertzera...» (69. o.).

14. «Orrela egun batean, lanik aundienak bukatu zirala ta... morroiari esan zion:

-Ikusten diat ire bearra beti daukagula emen, baño aurtengo lanik aundienak eginda izango zetuago (dizkiagu) eta uste diat alaba ta biok konponduko gerala emendik aurrera. Iretzat obe izango dek, emen baño geiago irabazten dean tokiren batera juatea...»

-Ondo dago, -erantzun zion motillak- ni emen oso pozik nengon, baño zuk ala nai dezun ezker... biar bertan juango naiz.

-Errorek nai deanean, -erantzun zion etsai zaarrak, pozez lertzeko zorian, ez zuan uste aiñ errex botako zuanik morroi ura.

Morroia ere ez zan asarre jarri. Izan ere, aspaldi artan zai zegon etsai zaar arek noiz bialduko ote zuan.» (69-70 ok.)

15. «Esan bezela, urrengo goizean atera zan motilla etxe artatik...

.....

Etxe bat bazegon artalde aundia zeukena, ta aita ill berria zalako, ama ta alaba bat gelditu ziran, biak bakarrik... Ortan zeudela azaldu zan motilla lan eske... Pozik artu zuten etxean, ta esan zioten artzai ibilli bearko zuala. Motillak besterik ez zuan nai.» (70-71 ok.)

16. «Urrengo egunetik asi zan morroi berria, ardiak mendira eramaten. Aurreneko egunetan, neskeak berak lagundu zion artaldea noa eram, eta larre tokiak nun zeuden erakusteko.

-Mendi au, aundia da -esan zion neskeak morroiari- baño, larre ugariena dagon tokira, ez daukagu artaldea eramaterik. Leoi aundi bat dago an, ta autza (ara) azaltzen diran ardi guziak, txikituta uzten ditu.

Motilla asko poztu zan gauza oiek danak entzutean, eta galdera as-

ko egin ziotzan (zizkion) ondoren... ta azkenean esan zion bera bakarrik naikoa zala ardiak zaintzeko, ta andik aurrera etxean gelditzeko amari laguntzen, ta berak bakarrik zekian bezelako opill goxo aiek egiteko.» (71. 0.)

17. «Urrengo egunean, motillak artu zuan artaldea aurretik, eta leoia ibilli oi zan larre edar artara eraman zuan. Laister entzun zan leoiaren orroia... Biak alkarrri elduta burruka gogor bat asi zuten, baño alkar ezin menderatu. Neka neka eginda, ia lertu bearrean jarri ziranean, leoiak esan zuan:

-A...! nik alako tokitan bizi dan nere anaiaren begiratu bat baneuke emen!, ez nitek ire bildurrik...

-Ez nik ere irerik, -erantzun zion motillak- ni orain bizi naizen etxeko alabak egindako opill bat eta ,bere musu bat baneuzke...

.....

Ondorengo egunetan berdin gertatu zan..

.....

Motillak, egunero goiz ekartzen zituan ardiak etxera, baño naikoa janda, ta esnea ere asko ugaritu zitzairen. Egiñalak egiten ziotzaten ama alabak, zer gertatzen ote zan atera naiean, baño alperrik, morroiak ez zien ezer esaten.

Alabak goiz batean, mendira juateko erabakia artu zuan, iñori ezer esan gabe, ta an zer gertatzen zan berak ikusteko...

...Egunero bezela (1), leoiak eta motillak burruka saioa egin zutenean, leoiak esan zuan:

-Ahh... nik olako tokitan dagon nere anaiaren begiratu bat baneuke!, ez nitek ire bildurrik.

-Ez nik ere, -erantzun zion motillak- ni orain bizi naizen etxeko alabak egindako opill bero bat eta bere musu bat baneuzke!

Neskea, an inguruko maillo baten atzean izkutatuta zegon, ta itz oiek entzutean, laisterka atera zan:

-Tori opilla ta tori musu bat -motillari esanez.

Motillak artu zuan opilla, eman zion neskeari musu bat, ta gero opill arekin jo zuan leoia kopetan, etaaa... bertan lurrera bota zuan ilda... Motillak tripea ebaki zion, ta erbi edar bat atera zan bertatik eta laisterka igesi juan zan. Motilla ere erbi biurtu zan, ta bereala arrapatu zuan. Erbiari ere tripak atera ziotzan, eta uso zuri edar bat atera; ta igesi juan zan egaka. Baño motilla ere uso biurtu zan, ta aldi batean ondoren janda, arrapatu zuan. Usoa ill zuanean, arrautz bat zegon bere barruan. Mo-

---

(1) Laugarren aldian.

tillak jaso zuan arrautza ura, ta kaja txiki batean sartu zuan autsi ez zedin. Gero neskea ta artaldea gelditu ziran tokira etorri zan. Neskeak eta biak ardiak bildu zituzten, eta etxera itzuli ziran, kontu kontari.

...eta danak, arrituta, pozez gelditu ziran... Ez zekiten nola eskrak eman morroi jator ari.» (73-74 ok.)

18. «Pena aundia artu zuten danak, batez ere amak eta alabak, motill arek esan zienean, bere egin bearra bete zuala, ta andik jua bearrean zegola...

Andik egun batzuetara, artaldea ta mendi ura utzi, ta etsai zaararren etxera jua zan, ondo ote zueden ikusi aitzikiarekin.» (74. o.)

19. «Etsai zaarrak, eta batez ere bere alabak, ondo artu zuten, egun batzuetan aiekin egoteko esanez.

...Motillak eta neskeak... Azkenean, aurreko aldian bezela egitea pentsatu zuten» (74. o.)

20. «Ondo jan eta edan egin ondoren, motilla jeiki zan maitik, pixka bat atsegitera zijoala ta... baño atariko piku gaiñera igo zan, ta an izkutatu. Etsai zaarra ta alaba ere atera ziran, ta piku azpiko aulkian eserita jarri. Alditxo baten izketan egon ondoen, etsai zaarra loak artu zuan.

Orduan motilla jetxi zan pikutik, ixil ixillik, artu zuan eskuan uso arrautza, ta: Zastaa...! leartu zion etsai zaarari kopetan. Au ez zan geiago esnatu.» (74. o.)


21. «Andik aldi batera, neskea ta motilla ezkondu egin ziran. Motillaren aita eta ama ere, baserri ortara ekarri zituzten..., taaaa... geroztik oso ondo bizi izan ornen ziran.» (74. o.)

Barandiaranaren kontuzaharra estilo sinbolikoan egin dagoela esan dut goraxeago, eta Arratibelena, bestalde, estilo zuzenez. Orain, puntu honi amaiera ematerakoan, zera esan bear dut bi kontuzaharrei buruz: lehen esan dut Kanillotxikiren biografia gogorra dela erakusten digula Barandiaranen kontuzaharrak, eta Arratibelenaren motillamorroiarena ere era berekoa dela, funtsean, gehitzen dut une honetan, goiko 21 puntuetan oinarrituz. Estiloan desberdianak badira ere kontuzahar biak, kontaketa mami aldetik berdina dira morrointzari dagokionez, ia puntu gehien gehienetan. Bi morroien bizimoduaren buruketa ez da antzekoa, Barandiaranen kontuzaharreko morroia etxera bihurtzen den bitartean, Arratibelen kontuzaharrekoa morroietxeko alabarekin ezkondu bertan bizitzen gelditzen da. Hortaz, nere entsaioaren azkenazkenean mintzatuko naiz berriz, puntu horixe izanik oraingoan batipat azpimarkatuko dudana.

### 3.3. HEROEA ETA ANTIHEROEAREN ARTEKO BURRUKA

Barandiaranen kontuzahararen azterketan bezalaxe, Arratibelenean ere grafiko batzu emango dut, hauetariko bakoitzaren ezaugarri nabarietak komentatuz.

Lehenen emango dudana grafikoa pertsonarte funtzionamendua kontuzaharrean dioena izango da:



#### GRAFIKO 6

Pertsonaien funtzionamendu soziala Kontuzaharrean  
Leienda grafiko lan eman da.

Oraingoan zenbait aldaketa agertzen zaigu pertsonarte funtzionamendua kontuzaharrean grafikoa Barandiaranen kontuzaharrekoarekin (grafikoa 1) konparatuz gero.

Arratibelenean, heroe txikirik ez daukagu. Heroe txikia egoteko baldintza hau bete behar da, nahitaez: antiheroe nagusiaren edo/eta txikiaren kontra jardun, eta horrelakorik ez zaigu gertatzen hemen. Zalantzarik, ordea, ez da falta, eta honetan datza: motillamorroiaren laguntzaile bezala agertzen den baserriko alaba, opilla eta musua morroiari ematen dizkiona, ez ote litzateke heroe txikia? Barandiaranenean heroe nagusiaren laguntzailetzat eman dut neskamea. Eta une honetan zer? Ba lehen bezalaxe egi-

ten dut, hots, laguntzaitzat jotzen dut Arratibeleko opil eta musu emaile den baserriko alaba hori, mendiko etsai zaharraren anaiaren (leoiaren) kontra zuzenzunean ez dihoalako, zeharkaka baizik. Beraz, Arratibelenean gauza berri bat agertzen zaigu, eta zera da: heroe txikirik ez daukagu Barandiaranenean bezala. Halere puntu hau aztergai bezala uzten dut, oraingoz.

Heroe txikirik ez daukagula oraintxe esan dut. Horixe bera ederki adierazten digu Arratibelen kontuzaharrak honako pasartean: «Motilla aspertu zan orrela bizitzen, eta noabait juatea erabaki zuan. Ta baita jua ere.

Goiz batean, iñori ezer esan gabe, artu zuan pardeltxo bat...» (65. o.). Kontuzaharrak dio «goiz batean, iñori ezer esan gabe» etxetik joateko presatu zela motillamorroia. Beraz, oraingoa, Kanillotxikiarenarik ez daukagu: Kanillotxiki bere aitak bixigudeabruarekin apustua galdu zuelako etxetik kanporatu beharra izan zuen. Arratibeleko motilmorroia, berriz, bere kabuz dihoa etxetik kanpora morrointzara. Etxetik kanporatzeko modua ez da berbera Barandiaranenean eta Arratibelenean. Hangoan, zorra gorabehera ikusiko nuke semearen etxetik kanporaketan; hemengoan, premia gorriak, eragindako erabaki pertsonala eta derrigorrezkoa besterik ez. Bietan, azken finean, baserriko ezinbizia. Kontura gaiteeen kontuzahar bi hauen bidez zenbat datu atera liteken Euskal Herriko garai batetako morrointzari buruz. Gauza bera egin liteke beste kontuzahar guztiakin euskal bizimoduaren hainbat puntutaz. Ez bakarrik kontuzaharren bidez egin liteke bistara gure herriaren historia gabeko historia, baita ere beronen beste eratako ahozko herri produzio guztiaren bidez: mitoak, esaundak, koplak eta kantazaharrak.

Grafiko 6an, heroe txikiaren hustsunea izan ezik, gaineantzikoa grafiko 1an bezala agertzen zaigu. Bakarrik zera esan behar da: Arratibelenean O edo erlazio sozialen gurutzaketa erdigunea ez dela agertzen imajinarioki ez bada, gurutzaketaren habe bat besterik ez delako atera onaingoan.

Eta Barandiaranenean esaten nuen bezala, hemen ere esan behar dut heroe eta antiheroen arteko erlazio erakusketa ez dela nahikoa kontuzahararren erlazio guztiak ezagutarazteko. Ondoan, grafiko 7, 8 eta 9ren bidez bistaratuko zaizkigu heroe eta antiheroe mota bakoitzaren laguntzaile saila.

NORK	NOR-ENGANDIK/I	LAGUNTZA ERA
HEROE NAGUSIAREN LAGUNTZAILEAK (motilmorroia)	{ Ama	SENITARTEKO ∅
	{ Alaba (etsai zaharraren -)	LANKIDE (EZKONGAI) +
	{ Alaba (alargunaren -)	LANKIDE (EZKONGAI) +
	{ Amaitak	SENITARTEKO ∅

**GRAFIKO 7**

Heroe nagusiaren eta bere laguntzaileen arteko harreman moduak



Komentario bat besterik ez dut egingo grafiko 7az, Barandiaranen kontuzaharra aztertzerakoan eman nuen grafiko 2koa nahikoa baita, 7. hau ulertzeko zuzenzuzenean. Grafiko 7ko gauza berria zera da: amarengandik lehenengo eta amaia-tingandik gero, morroimotillak eta semeak jasotzen duen laguntza ez da ez negatiboa ez eta positiboa, eta Ø ikurrak izendatzen dut. Puntu honetan ere, orduan, Arratibelen kontuzaharra Barandiaranenekiko desberdin da.

Eta segidan antiheroearen laguntzaile grafikoa ikus dezagun:

NORK	NOR-ENGANDIK/-RI	LAGUNTZA ERA
ANTIHEROE NAGUSIAREN LAGUNTZAILEAK (etsai zaharra)	Alaba (bere -)	SENITARTEKO + -
	Anaia lehoi (bere -)	SENITARTEKO +
	Morroia (motill)	UGAZABA-MORROI +

### GRAFIKO 8

Antiheroe nagusiaren eta bere laguntzaileen arteko harreman moduak

Grafiko honiz buruz hauxe bakarrik aipatuko dut: Barandiaranenean antiheroeak lau laguntza hartzen zituen lekuan Arratibelenak hiru besterik ez ditu. Bixigudeabruak senitarteko laguntza bat zuen, eta etsai zaharrak bi. Hark eskale laguntza era bazuen, eta gainera ugazaba-morro/neskame laguntza era bi. Honek zer adierazten digu argi eta garbi? Barandiaranenean bixigudeabruaren etxea haseran pobre agertu arren, Kanilloren-gana eskale bezala joaten baitzaio bi aldiz bigarrengoan Kanillo bere semea kenduz indartuta gelditzen delarik, gero indartsu agertzen da neska-me bat eta morroi bat dituelarik. Kanillotxiki zergatik dihoa kanpora bixigudeabruaren etxetik? Kontuzaharrak ez digu argitasun apartekorik ematen: «Gau batên bê etzanlekua zijôla, uste baño ots geiao nunbait atâ, ta deabrûk deadar eiñ ementzion ze, beiz geldi eote ez bazan, itxasoa botako zôla.

Eta baita eiñ ê. Atêkiñ eo ots pixka'at atâ zôn besta gau batên, deabru ôrek artu ta itxason úrutia bota ementzôn» (BARANDIARAN, OC 2; 302 o.) Zer da ate otsa? Arratibeleneko motilmorroia, berriz, zergatik dihoa etsai zaharraren etxetik? Hara zer dion kontuzaharrak: «Morroia ta bere alaba elkarrekin ondo etortzen zirala antz eman zuanean, etsai zarrak morroia etxetik botatzea erabaki zuan, naiz eta langile ona izan eta bearrezkoa» (67. o.). Kontuzahar kontaketa-aren amaieran motilmorroia eta etsai zaharraren alaba ezkondu egiten direla kontatzen zaigu. Etsai zaharrak ez du nahi bere senitarteko bezala motilmorroia. Alferrik, ordea, etsai zaharrak ez du irabatziko, bere alaba kontra dauka eta motilmorroia-aren laguntzaz aurrera aterako da bere aitaren borondatearen gaitetik. Horregatik, alabaren laguntza eran bi zeinu agertzen zaigu: positiboak derrigortasuna adieratziko luke, eta negatiboak borondatea, hau da,

positiboak alabaren familiarekiko lotura nahitaezkoa eta negatiboak alaba beraren adinara. Gorabehera guztiok sakontzeko beste tokirik ez daukat entsaio honetan, eta honi jarraituko dioten entsaioetan hauek eta berriak berraztertuko ditut argitasunera erabat ekarri arte.

Azkenik, antiheroe txikiaren laguntzaileak ikus ditzagun:

<u>NORK</u>	<u>NOR-ENGANDIK/-I</u>	<u>LAGUNTZA ERA</u>
ANTIHEROE TXIKIAREN LAGUNTZAILEAK	Mendiko etxeokak: alarguna, alaba	MENPEKO +
	Etsai zaharra (anaia)	SENITARTEKO - (AMESLARI)

### GRAFIKO 9

Antiheroe txikiaren eta bere laguntzaileen arteko harreman moduak

Barandiaranenean gauza bera agertzen zitzaigun antiheroe txikiaren laguntzaileez aritu ginenean. Esan behar da kontuzaharrak ez duela ezer esaten antiheroearen bi laguntza era hauen sorreraz. Beste kontuzahar batzuen laguntzaz lortuko genuke honetaz argia. Hortxe ere ikus daiteke kontuzaharren arteko batasuna, lokera. Gaia luzea eta astuna delakoan nago: kontuzahar multzo horrekin lortuko al geunke argitasun osoa?; noiz eta nola jakingo genuke multzoa osotu dugula? ; multzo horretatik kanpo ere ez ote beharko litzateke arakatu argitasunaren osaketarako?; kontuzaharrak bizi dituen komunitateak, familiak textotik kanpo kontexto bat ere ez ote dauka?; hitza izan arren gizakomunikabide nagusia, ez da dendena beti hitzez inoiz adierazten. Galdeketen premia erakusten digu arazo honek, eta beste edozein laguntza premia: arkeologiarena, historiarena, psikologiarena, soziologiarena. Azterketaren muga, beraz, geroz eta zabalagoa agertzen ari zaigu.

Barandiaranen kontuzaharreko laguntzaile grafikoan zerrenda bukatzerakoan zera galdetzen nuen: zerk kontrajartzen ditu elkarri heroe nagusia eta antiheroe nagusia, heroe nagusia eta heroe txikia, antiheroe nagusia eta antiheroe txikia, heroe nagusia eta antiheroe txikia, heroe txikia eta antiheroe nagusia. Zerk? Eta orduan nion grafiko 1koa eta Arratibelen kontuzaharraren azterketakoa kontutan edukitzeko. Heldu da garaia horretarako, eta honenbestez, baita ere, entsaioaren, azken zatia.

## 4. BI KONTUZAHAR HAUEN ALDAKINTASUNA

Kontuzahar bi hauen artean funtsezko berdintasuna badagoela erakutsi digu orainarteko azterketak. Ezberdintasunak ere azaldu dizkigu. Aldakinak direla esango dut, orduan, eta ez berdinak. Zertan diren berdin eta zertan ezberdin argitzea da laugarren puntuaren zeregina. Hori, ordea,

lehen ere esan dut. Aurreko hiru puntuen azalpena gogora. Orain, gauza bera ordenan ematea besterik ez daukat.

Noan, bada, kontuzahar hauen arteko antzeko diren puntuak aipamera lehenengo, eta desberdinak direnak azkenengo.

#### 4.1. BARANDIARANEN ETA ARRATIBELN KONTU ZAHARREN ARTEKO ANTZEKOTASUNA

1. Bietan hiru familia dago.

2. Bietan, zio berdinagatik, semea kanporatzen da bere familiatik, morroi urtetzeko. Bakoitzak era desberdinean egingo du: Barandiaranek, Kanillotxikik, bere aitak bixigudeabruarekin apustua galdu duelako; Arratibelenak, motilmorroiak, bere bostean erabakia hartu duelako. Apustua-ren puntua ilun gelditzen da kontuzaharrean, ez baitakigu zein den bere esanahia zuzena pertsonartean. Iluntasuna, behin eta berriro diot, beste kontuzahar batetako edo beste toki batetako (galdeketa, historia...) argitasunaz ezabatu beharrean gelditzen gara. Eta motilmorroiaren portaera galdeketen nahiz historiaren (dokumentuen) bidez argitzea errexa izango dela uste dut. Baina, puntu hauen argibidera ez noa entsaio honetan.

3. Bietan semea da etxetik kanpo urtetzen dena. Puntu jakingarria. Gizonezkoa etxetik kanpo joan ohi da bi kontuzahar hauetan. Emakumezkoak, kontuzahar hauetan, baserrian dabilta beti: etxean, eta etxetik kanporatzerakoan etxera itzuliz egunaren bukaeran. Gogora, bestela, Arratibelen ama alargunaren alaba: «Alaba neska larria zan eta bera ibiltzen zan artzai ta beste lanak egiten» (71, o.). Neska hau etxeoandregai tipikoa dela pentsaarazten du deskribapenak: etxeke ardura guztien kargurako gertatua dagoela dio kontuzaharrak, eta karguen deskribapen azkarra eta elegantea ere egiten du: 1. «larria zan», beraz adinera heldutakoa; 2. «bera ibiltzen zan artzai», etxearen gain azaltzen zaigu artzaintza mota hau, hau da, goizean mendira urten eta gaberako itzuli, lanori gizonezkoek ere egin ohi dutelarik (geroxeago motilmorroia joango da artzain), eta etxearen lan hau bikoitza da emakumezkoak nahiz gizonezkoak egin lezakitelako; 3. «eta bera ibiltzen zan... beste lanak egiten», etxe barnekoak direla pentsa genezake kontrajarketa estiloagatik, hau da, kanpoa eta etxea edo barnea kontrajarketa geunke eta kanpoko zeregina esaten duen arren etxekeo edo barnekeo ez du esaten beste kontrajarketa bat eginaz. Esaten du eta ez du esaten. Kontuzahararen teknikaren beste alderdi jakingarri bat!

4. Bietan lehenengo lantokiko edo etxeke ugazaba hiltzen du motilmorroiak, bietan ugazabaren etxeke emakumezkoaren ahotik jasotzen duen ugazaba hiltzeko soluziobide bakarra. Emakumearen bitartekotasuna bistako da. Emakumea etxeari hertsiki lotua erakusten digu kontuzaharrak.

5. Bietan bigarren lantokiko etxeke opilaz baliatuta motilmorroiak eta Kanillotxikik burrukatuko dute mendiko izaki beldugarria: gizonfigu-

rako lehoia Kanillotxikik, eta lehoi itxurazko etsai zaharraren amaia motilmorroiak. Zergatik bi baserri, baserri bateko ugazaba menperatzeko? Arratibelenean batipat. Izan ere, hemengo ugazabaren alabak laguntza zuzena eskeini baitio motilmorroiari bere aita hiltzeko. Azterketa aurrera dihoan moduan, geroz eta gehiago zabaltzen dihoa kontuzaharraren eremua, baita bere barnegitura konplikatu gotzen ere. Lana handitzen dihoa, beraz, azterlariarentzat.

6. Bietan motilmorroiaren lehenengo etxeko ugazaba hiltzeko etxearekiko zuhaitzean gordetzen da: Barandiaranenean «Ároutza oi artu zônên, uso biurtuta itxasoko deabrûn etxeondoko intxaur gañea jûn emenman.» (304 o.); Arratibelenean: «Onda jan eta edan egin ondoren, motilla jeiki zan maitik, pixka bat atsegitera zijoala ta..., baño atariko piku gañera igo zan, ta an izkutatu» (74. o.).

7. Bietan heroe eta antiheroe arteko erlazio nagusienak berdinxamarrak dira (ikus grafikoak). Kontuzaharraren kontakizun teknika, beraz, antzekoa da bietan.

8. Bietan izaki aldakuntza asko ematen: Kanillotxikik leoi, uso eta txingurri bihurtzeko indarrak bereganatzen ditu epaigintza medio; motilmorroiak antzeko indarrak dauzka, nola lortuak dituen esaten ez zaigula, erbi eta uso bihurtuz arraultza bilatzerakoan. Bietan, etsaiak eta deabruak izaki anizdun agertzen zaizkigu.

Besterik gabe amaitzen dut kontuzahar bien arteko antzekotasun puntua. Puntuak aipatu besterik ez dut egin, entsaioaren mugetatik at ez ibiltzeko, hortarako azterketa luzeagoen premia ederki ikusten dela.

#### 4.2. BARANDIARANEN ETA ARRATIBELÉN KONTU ZAHARREN ARTEKO EZBERDINTASUNA

1. Barandiaranenean arrantza mundua eta itsasbazterra aipatzen dira. Arratibelenean, ez. Itsasbizimodua eta baserribizimodu lotuta aurkitzen dira harenean. Kontuzahar hau bi bizimoduei buruzko kontuzaharren zubitzat jo liteke. Zubikotasunaren azterketa beste une edo marko batetan burutuko dut.

2. Barandiaranenean opila bakarrik eskatzen du Kanillotxikik. Arratibelenean opila eta bigarren baserriko alabaren musua eskatzen du motilmorroiak. Geroago ikusten denez, Arratibelenean lehenengo baserriko alabarekin ezkonduko da morroimotila, eta Barandiaranena ezkondegabe aitaren baserrira itzuliko da. Ezberdintasun hau oso garrantzizko da. kontuzahar hauen mamia edo funtsezko historiagabeko historia kanporazteko.

3. Barandiaranenean bigarren etxeko neskamearen laguntza eskatzen du heroe nagusiak edo Kanillok. Arratibelenean, aldiz, alabarena eskatzen

du. Puntu hau ere aurrekoarekin ertsiki lotuta ikusten dut, eta beraz kontuzahar hauen historiagabeko historiarekin.

4. Barandiaranenean bixigudeabruaren hilketarekin etxeratu egiten da Kanillo, hau da, aitarengana joaten da. Arratibelenean, ez! Honenean, motilmorroia etsai zaharraren alabarekin ezkondu eta gaiñera bere amaitak baserri berrira ekartzen ditu. Hementxe daukagu kontuzahar bion arteko ezberdintasun nagusia edo historiagabeko historiaren gailurra, nere ustez. Baina, hori geroxeago azalduko dut entsaioari amaiera emanaz.

## 5. HISTORIA KONTATUAREN HISTORIAGABEKO HISTORIA

Heldu naiz entsaioaren azken zatira. Eta bi puntu azpimarkatuko ditut honetan: historia kontatua eta historiagabeko historia kontzeptuak, eta bi kontuzahar hauen historiagabeko historia.

### 5.1. HISTORIA KONTATUA ETA HISTORIAGABEKO KONTZEPTUAK

Kontuzaharrotan eta bestetan ere historia bat esaten zaigula da entsaioaren tesia. Esaten zaigun historia hori kontuzaharren bidez datorkigunez, historia kontatua deitzen diot. Kontu hauek, kontatuak gaiñera, zaharrak direla esaten zaigu «kontuzahar» izenean. Zahartasunaz ez naiz arduratu oraingoan, baina dudik ez dago kontuzaharrak zaharrak direla era askotatik begiratatuta. Kontuzaharrak beste modu batera ere izendatzen dira herrian, batipat «ipuiak» izenaz. Guzti honetaz gaurkoan ez naiz arituko.

Herriak gainera, bere historia (edo bereagoa edo hurbilagoa zaion historia, zeren herriarena dela esatean, kontzeptu hau zabalegi da eta zehaztasun premium daukagu) beste modu batera esaten digu. Historia kontaketa modu hau bere kanta zaharretan eta koplatan ere agertzen zaigu. Historia hau historia kontatuaren parekoa izanik, mamamiari eta helbideari dago-kienez, kontatzeko moduagatik desberdina da, Kontuzaharretan historia kontatu egiten da, eta kantazahar eta koplatan kantatu. Horrexegatik bi erak honela bereizten ditut: historia kontatua da kontuzaharretakoa, eta historia kantatua kantazaharretakoa eta kopletakoa. Era nahastuak ere ez zaizkigu falta ahozko herri produkzioan, hots, kontuzaharretan inoiz kantatzen da eta kantazaharretan eta kopletan kontatzen.

Historia era bi hauek, historia berberatzat joz, herriarenak (nola?) direlako, historiaz beterik dauzkagu, eta historia hori historiagabekoa da hein handi batetan nola Euskal Herrian hala atzerrian. Nere asmoa zera da, gai honetan geroago eta gehiago murgiltzea, orainartekoa kontutan hartuz osoago agertzeko eta, ondoren, beste historia aristokratiko horrekin kontrajartzeko historia gabeko historia hau. Historia aristokratikoa dokumentuetan edo idatzietan oinarritua denezkeru, historia idatzia deitzen diot.

## 5.2. BI KONTU ZAHAR HAUEN HISTORIAGABEKO HISTORIA ZEIN DA?

Historiagabeko historia honek atal eta azpiatalak lituzke aurreko mikroanalisiak erakusten digunez. Gaurkoan bere muina, nere ustez, litzatekena agertzera besterik ez nator.

Kontuzahar bakoitzaren historiagabeko historia nagusia honela ikusten dut mikroanalisiaren ondorio lez:

1. *Barandiaranen kontuzaharreko historiagabeko historia nagusia*

a) Kontuzahar kontaketa teknika ekonomikoa eta sinbolikoa da. Ekonomikoa, zeren eta kontaktzen duen guztia kontakizunaren hariari lotuta dihoalako. Hori beti gertatzen ez bada ere ia beti gertatzen dela esango nuke nik. Agian hariari hain hertsiki lotzen ez zaion pasartea zera litzateke: kanillotxikik lehoi, uso eta txingurriaren arazoa epaitzen duenean; baina, bestalde, epaiketa onartuaren ondorioz bereganatzen duen izaki bikoizketarako indarra oso premiazko da kontakizun harirako. Horregatik uste dut pasarte hau ere ekonomiko delako.

Eta sinbolikoa, zeren eta izaki anizdun asko agertzen delako. Alde honetatik begiratuta, kontuzaharraren antzinatasuna usaintzen dela esango nuke. Honi kontra jartzen zaio, berriz, kontuzaharraren gaurkotatasuna (1922an gabilta). Kontuzaharren ezaugarri nagusienetariko bat horixe litzateke: alde batetik antzinatasunak ornituak daude, aspaldi apaldikakoak direla esanarazten digun antzinatasunaz; eta bestetik gaurkotatasunaz ornituak ere, une bereko kezka edo errealitate bateri lotuta daudelako gaiari eta esateari dagokienez, izan ere kontuzaharrak esaten badira esaten den garaiarekin lotuta daudelako da. Honen froga ederrak ari naiz jasotzen kontuzaharlarriengan, ere beste batetan hauetaz arituko naizelarik.

b) Morrointzan dabilen etxeetako jendearekin harreman txikiagoak ditu Kanillok Arratibelen morroimotilak baino. Kanillo bixigudeabruarengana aitaren bidez, apostua medio, heltzen da, eta bere gogo kontraz ere etxetik botako du hark. Gero, bere kabuz, bigarren baserrira heltzean, bertako neskamearekin harremanetan jarriko da baina ez etxe bertako inorekin eta arraultza lortuzkero inork ez du penarik bere urteeragatik, Arratibelenean bezala. Hau da, era sinbologikoaren indarra kontuzaharraren maineraino dator, gauzak askatzeko bidea pertsona indarren gainetikotan topatzen da eta ez beste inon. Horrelakorik ere badago Arratibelenean, baino askotzat ere gutxiagotuta. Izaki espirituzkoen presentzia handi handia da kontuzahar honetan, Arratibelenaren aldean.

c) Kanillo, lehenengo etxeko ugazaba hiltzen duenean, jaiotetxera bihurtzen da, nonbait bere premia ere bada etxe horretan. Bixigudeabruarekiko bere aitak leporatu zuen pisua ezabatzean, Kanillo aske da baina nahitaez bere familiarengana bihurtu behar: familiak bere premia gorria daukelako (semenagusitarako?) ala zahartzarorako toki zihurra hantxe dau-

kelako? Kontuzaháren amaieran honela deskribatzen zaigu: «Bê éria jûn-da, ea Kanillo arantzalea nun bizi zan galdetu ementzôn.

Oloko etxetan bizi zala; baño Kanillo ez deitzeko geo ári, abeastu zan ezkeo etzôla izen orênik nai ta, esan ementzioên.

Jûn da bâ etxe ortâ, deitzen do atên, da baitta Kanilo bea irten.

-Zu altzea Kanilo? -esa'ementzion.

Izen oi aittu zônên, Kanillok bekoki ilune jári ementzion, eta ez ementzion luínik eantzun.

-¿Ez altzea akordatzen nola bialdu ninduzun deabrûn etxabeltzea?

Urdûn ezautu ementzôn Kanilok bê semea eta pozik etxên artu ementzôn.» (304-305 ok.).

Eta «abeastu zan ezkeo etzôla izen orênik nai ta» botatzen digu kontuzaharrak. Beraz, semenagusitarako etorri ote zen bere etxera Kanillo bixigudeabrua hil zuenean?

Kontuzahar honetako historiagabeko historia nagusia, bada, bistako zaigu orain: Kanillok, apustua medio, zar handiak egiten ditu eta trukean bere semea utzi beharrean aurkitzen da.

Zorra ezabatzeko modua bixigudeabrua hiltzea da, eta hori eginik etxeraten da Kanillo beste ondasunik gabe, zorra kentzearena izan ez ezik. Zerí buruzkoa zen apustua? Bixiguari buruzkoa, hau da, arrantzari buruzkoa. Baina zer nolako arazoa zen arrantzarena? Hemen zuzenezuzenean erantzuterik ez dut ikusten beste kontuzahar aldakin gehiago aurretik aztertu gabe. Halere bi soluziobide hipotetiko proposatzen edo aurreratzen ditut: lehenengoa, aita arrantzalea edo Kanillo arrantzalea zahartu egiten da eta arrantzarik ezin du egin gehiago bixiguak irabazten diolarik, orduan bere semea bidaltzen du arrantzara eta honek arrantza egiten du eta ona egin ere; bigarrenkoa, aitak ezin du arrantza onik egin itsaertzetik gertu, eta bere semea itsasurrutira bidaltzen du. «Bêla abeastu ementzan Kanillo; baño bê semea an urúiko itxasbartzaren zeôn etxabeltz batea betiko bialdu bear; etxe ue ementzan bixigûn etxea ta» (302 o.), eta aurrexago: Kanillotxikik «Atêkin eo ots pixka'at atâ zôn besta gau baten, deabru orek artu ta itxasôn urútia bota ementzôn» (302 o.). Itxasherriko etnografiaren premian aurkitzen da une hontan mikroanalisisa, eta hortik zehar beste batetan abiatuko naiz.

Puntu hau amaitzeko, esan dezadan kontuzahar hau nahastua dela edo mixtoa. Kiasma jakingarria gertatu zaigu, bere bitartez itsasherrien eta baserrien arteko harremana azaltzen baitzaigu. Earandiaranen honetan nahiz Arratibelenean azpiegitura berberera heltzen gara azken finean.

## 2. Arratibelen kontuzaharraren historiagabeko historia nagusia

a) Kontuzaharraren estiloa sinbolikoa izan arren, Barandiaranenarekin konparatuta errealistagoa edo zuzenagoa da. Lekuko, morrointzaren deskribapen antologikoa! Estilo errealistagoa erabiltzen duenez Arratibelenak, eraberrituagoa eta gaurkoagoa dela ere esan behar da. Arratibelena esaten den giroan edo guxienez moldatzen den giroan errealismo gehiago dago eguneroko bizimoduaren berri herrikoia azaltzerakoan. Puntu honetan ezberdintasun handia nabaritzen da bi kontuzahar aztertuen artean.

b) Morroimotila dabilen etxeetako jendearekin, bertako direnekin oso ondo konpontzen da, bietako alaben bihotzak eskuratzen dituela. Morroi hau etxetik zergatik urten den kontuzaharrak era zuzenezean kontaktzen digu, eta interpretatzen hipotetikoaren beharrik ez daukagu. Baina Barandiaranenean nahiz Arratibelenean familia behartsu aurkitzen da eta semea (nagusiena ala beste bat? Kontuzaharra kontakizuna ekonomikoegia ere bada batzutan gure azterlariontzat, ez ordea kontuzaharrentzuleentzat kontuzaharra entzuterakoan kontuzaharraren giroan edo kontextoan bizi baitira) kanporatu beharrean aurkitzen da. Horregatik diot azpiegituren batera dihoazten arren bi kontuzaharrak arazo konponbidean desberdin jokatzen dute, izan ere gizartean familia behartsuentzat bide bat baino gehiago baitago aurrerapiderako!

c) Morroimotilak etsai zaharra hiltzen duenean, eta zergatik hiltzen ote du?, bere alabarekin ezkondu eta bertan bizitzen jartzen da, gurasoak ere bertaratuz. Hemen ere interpretapen hipotetikoaren bidetatik zehar abiatu beharrean aurkitzen naiz kontuzahar gehiagoren mikroanalisitara jotzen ez den bitartean. Hauen beharra ere onartu egin behar du azterlariak, bere azterketa teknika zorrotzago gerta dakion eta gainera beti ez baitzaio posible izango beste kontuzahar edo materialeren baten laguntza eskuratzea.



## RESUMEN

JOXE MARTIN APALATEGI BEGIRISTAIN

Presento dos cuentos viejos recogidos en Ataun, el uno por el Dr. Etnólogo y arqueólogo BARANDIARAN Joxemiel, que lo oyó de su sobrina BARANDIARAN María y publicó el año 1922, y el otro por el monje ARRATIBEL Joxe, que lo oyó en su familia en su niñez y publicó el año 1980.

Los dos cuentos viejos, cuyo texto puede leerse aquí, fueron recogidos en euskara. BARANDIARAN tradujo el suyo al castellano: «Kanillo arrantzalea eta Kanillo-txiki = Canillo el pescador y Canillo el chico». Yo lo he cogido de la forma en que aparece en sus OBRAS COMPLETAS 2, 1973, pp. 301-305. ARRATIBEL publicó el cuento viejo en cuestión, junto con otros 21, en su libro KONTU ZAARRAK, pp. 65-74. La traducción de este cuento viejo es mía: «Etsai zaarra ta mendiko leoia» = «El viejo diablo y el león de la montaña». El editor de ambos textos es La Gran Enciclopedia Vasca - Retana, Bilbao.

En mi estudio sobre los dos cuentos, he microanalizado por separado cada cuento viejo, para luego compararlos entre sí. Por ahora me limité a los textos, y no abundé en los contextos. Pero el estudio de éstos también es necesario para completar el microanálisis que he practicado. En otra ocasión, no lejana, aparecerá esta segunda parte del estudio tanto para los dos cuentos viejos presentes como para otros que vengo haciendo, recogidos en Ataun y otras partes de Euskal Herria. Por ahora, sólo pretendo mostrar que el texto de los cuentos viejos se sostiene por sí mismo: estos cuentos viejos han circulado como tales en una comunidad determinada y un tiempo determinado, ambos muy cercanos para mí y para los oyentes de las Jornadas de Antropología, cuadro en el que enseñé este estudio; y el microanálisis, por su parte, pone a la luz que los dos textos examinados tienen una coherencia y que se bastan a sí mismos. En este caso qué es lo que hacen circular socialmente estos dos cuentos viejos? La historia a dos versiones, correspondientes a otras tantas soluciones operadas en las comunidades a que se refieren, sobre la suerte que corre el hijo, sea primogénito u otro, de una familia que tiene graves dificultades para subsistir por sus propios medios.

**ERANSKINA - APENDICE**  
**Bi kontu zahar - Dos cuentos viejos**

---

**KANILLO ARRANTZALEA TA KANILLO-TXIKI**

BARANDIARAN JOXEMIELEK

Jasoa

*Mundûn besta asko bezela erri'aten Kanillo izena zôn arantzale'at bizi ementzan.*

*Eun batên itxasôn arantzán zeillela, bixigu'at ata ementzôn.*

*Bixigûk esa' ementzion utzi zeiola libre. Baño Kanillok ez ementzion utzi nai.*

*Urdûn, bixigûk esa' ementzion: libre uzten badiâk, abeastuko aut.*

*Atzea itxasoa bota ementzôn bixigu oi. Eta geo sekulako abeastu ementzan.*

*Baño laixter ondasun gurtik jan, eda beño arantzêri ekin bearên gertau ementzan.*

*Beiz ê lêngo bixigue atâ ementzôn. Eta bixigu órek esa' ementzion ze: gaur etxeakôn bidea lêhengo atâtzen zatân gauzea ematen badik, eundañoko abeastuko aut.*

*Eunero-eunero txakur txiki'at ata oi emenzitzaion bidea, eta etzala berdín gauza aundie ta baietz aindu ementzion.*

*Eun artan bestêtan baño beandûgo eiñ emenzitzaion, da etxên ê luzetizita ementzêren.*

*Óreatio, nola txakûre irtengo zitzaion ze, bê seme Kanillotxikik irte' ementrion.*

*Bêla abeastu ementzan Kanillo; baño bê semea an úrutiko itxas-baztárên zeôn etxabeltz batea betiko bialdu beár; etxe ue ementzan bixigûn etxea ta. Etxe artan, Kanillôri bixiggûn piguran agertu zitzaion deabru'at bizi ementzan.*

*Antxe bâ geatu ementzan Kanillo-txiki, deabrûn mende, sekulan andi irteteko eskubideik izengo etzôn etsipenên*

*Gau batên bê etzanlekua zijôla, uste baño ots geiao nunbait atâ, ta deabrûk deadar eiñ ementzion ze, beiz geldi eote ez bazan, itxasoa botako zôla.*

*Eta baitta eiñ ê. Atêkiñ eo ots pixka'at atâ zôn besta gau batên, deabru ôrek artu ta itxasôn urutia bota ementzôn.*

*Irarika-irarika goizaldeako oratio itxasbartzárea ingurau ementzan. An ikusi ementzittzûn legoi bat uso'at eta txingúri'at ildako beor zâr bat aúrên zoela*

*Kanillo-txiki ikusi zoenên, iruek oska jári ementzizaion: ¡gizon, gizon! ator unutzá.*

*Jûn emenzitzaiên bâ, eta ze beartzoên galdetu ementziên.*

*-Iru eun ontan emen ai gaittuk beor zâr au, geon arten, bear beze-la eziñ erdibanátuik, eta ea ik erdibanátzen dituân -eantzu'ementzioên*

*-Oinbeste eingo dizuêt benepeiñ.*

*Ta legoiâi adagi danak izentâtu ementziotzan; usôri beiz sabelak; eta txingúririri, ezúrek bân muñekiñ.*

*Iruék oso konprome geatu ementzien, eta Kanillotxikik aldeñ eiñ ementzôn geo.*

*Andi geroxâgo iruei buruatu emenzitzaiên ze, gizon aek alako bana-keta edéra eintziêla, eta eak beiz etzioêla ezertxôrê eman.*

*-¡Gizon, gizon! ator unutzá -otseiñ ementzioên.*

*Atzea Kanillo-txiki jûn emenzitzaiên bâ ea ze ote zoên, da legoiak esa ementzion: aiñ banaketa edéra ein diuk eta guk ez diau ezer ê eman. Bâ nik emango'iât gauza'at. Ara: LEGOI esaten deân bakoitzên legoi biurtuko aiz.*

*Urdûn'usôk esa'ementzion: uso esaten deân bakoitzên uso biurtuko aiz.*

*Eta txingúrik ê esa'ementzion: TXINGURRI esaten deân bakoitzên tzingúri biurtuko aiz; baño ortâko nê bizkaréti puska'at kendu bear dik.*

*Kendu ementzion bâ txingúririri puska, oi, ta iruei eskárikasko esan da aldeñ ementzôn Kanillo-txikik. Ta geo esan USO, ta uso biurtuta deabrûn etxabeltz aren ondoko intxaur gañea jûn ementzan.*

*Eseitta euzkie artzên ementeôn deabrue bê etxe aúren. Neskamea beiz burue garbittu ta ofazten ai emenzizaion.*

*Usoa ikusi zônên neskamêk esa'ementzôn: ¡ze uso edéra!*

*-I bezela -eantzu'ementzion deabrûk.*

*-Zuk illezkoâ dirudizu. ¿Nola bizie galdu lezakezu zuk?*

*-Iparâremendin bizi'en nê anaie. Aren sabelên zeon erbi'at; erbi onen sabelên uso'at, eta uso onen sabelên afautza'at. Ni ilko nauenak afautza ôrekiñ bekokiñ jo bearko nenduken.*

*Au aittu zônên, Kanillo-txiki Iparâremendia egâka jûn ementzan.*

*Mendi aren ingurûn etxe'at ikusi ementzôn, eta an deittu eta ea móroitza artuko zôen galdetu ementzôn.*

*Baietz, artzanzâko baten bearên zerêla ta geatzeko esa'ementzioên.*

*Urungo goizên artzai bialdu ementzôn nausik. Baño esa'ementzion Iparâremendia ardik ez eamateko, bestela ango debru'atek ardi guzik galdu eingo littûzkêla ta.*

*Alârê Kanillo-txiki, bê ardikiñ, Iparâremendia jûn ementzan.*

*Amaikâk ingurûn, deabrue gizon -piguran agertu emenzitzaion.*

*Kanillo-txiki, LEGOI esanda, legoi biurtu ementzan, eta baitta bu-  
rûkan ekiñ ê deabrukiñ.*

*Ez batek eta ez bestêk ez ementzoên alkar mendeatzen.*

*-¡Ai! nê etxên goizeko amaikâtan eitten doên opille auan baneu-  
-iAi! ¡nê anaie emen baleo! -ementzion deabrûk.  
ke! -deadar eiñ ementzôn Kanillo-txikik.*

*Burûkan aspertu zienên, bakoitzek bê aldêrdia jo ementzôn.*

*Ardik sekulan baño geiao jan ementzoên: autza beiñê ardik jûn ez ta  
lâre aundie ta gozoa ementzeôn bâ.*

*Nausie asko árittu ementzan ârdik aiñ betêk ikusi .zittûnên.*

*Bigâren eunên ê Iparâremendia jûn ementzan Kanillo-txiki bê ârdikiñ.*

*Etxeko neskamea atzeagoti ementzijôn relatan, Kanillo-txikik ze eitte,-  
ote zôn jakin nai nunbait eta.*

*Amaikâk ingurûn agertu ementzan deabrue.*

*Kanillo-txikik, esan LEGOI, ta legoi biurtuta ekiñ ementzion burû-  
kan deabru orî.*

*Ez ementzoên alkar mendeatzen.*

*-¡Ai, nê anaie emen baleo! -eitte ementzôn deabrûk.  
-¡Ai, nê etxên goizeko amaikâtan eitten doên opille auan baneu-  
ke! -eitte ementzôn Kanillo-txikik.*

*Baitta neskamek, ondoko sasi'aten atzeti zelatan eon, da ze esaten  
zoên aittu eiñ ementziên.*

*Aspertu zienên, alkári utzitta, bakoitze bê aldêrdia jûn ementzan.*

*Irugâren eunên ê Kanillo-txikik bê ardik Iparâremendia eaman emen-  
tzittûn.*

*Neskamearê aúrekôn bezela, atzeti ba ementzijôn. Opil bat ê ba  
ementzeaman baezpazan.*

*Amaikâtan agertu ementzan deabrue.*

*Eltzen dio Kanillo-txikik legoi biurtuta. Baitta bestêk ê.*

*Baño ez ementzoên urdûn ê alkar mendeatzen.*

*-¡Ai, nê anaie emen baleo! -deadar eitlte'ementzôn deabrûk.*

*-¡Ai, nê etxên goizeko amaikâtan eiten doên opille auan ba-neuke! -bestêk.*

*Urdûn neskamek, sasi atzên zeôn lekuti, opille bota ementzion. Baitta laixter jan ê Kanillo-txikik.*

*Opil arekiñ asko albizittu ementzan Kanillo-txiki, ta bêlexe luêrea botata mendeatu ementzôn deabrue.*

*Baitta bizie kenduta sabela zâdûrê. An ementzeôn erbie. Zaldu arêrê sabela, an azaldu ementzan usoa. Usôrirê miau bârune. T'an billau ementzôn arautza txiki'at.*

*Arautza oi artu zônên, uso biurtuta itxasoko deabrûn etxeondo-ko intxaur gañea jûn ementzan. An, txingurí biurtuta, itxoitten jári ementzan.*

*Andi bêla deabrue etxeti atâ ementzan. Eta intxaur-itxalên etzan da lotan jári ementzan.*

*Urdûn Kanillo-txikik, bêra jetxi, gizon biurtu ta deabrûri arautzea bekokiñ erdia bota ementzion.*

*Deabrue ilda geatu ementzan.*

*Kanillo-txikik bê burue libre ikusi zônên, andi agudo aldeíñ ementzôn.*

*Bê eña jûn-da, ea Kanillo arantzalea nun bizi zan galdetu ementzôn.*

*Oloko etxetan bizi zala; baño Kanilo ez deitzeko geo ari, abeastu zan ezkeo etzôla izen orénik nai ta, esan ementzioên.*

*Jûn da bâ etxe ortâ, deitzen do atên, da baitta Kanilo bea irten.*

*-¿Zu altzea Kanilo? -esa'ementzion.*

*Izen oi aittu zônên, Kanillok bekoki ilune jári ementzion, eta ez ementzion luíriñik eantzun.*

*-¿Ez altzea akordatzen nola bialdu ninduzun deabrûn etxabeltzea?*

*Urdûn ezautu ementzôn Kanilok bê semea eta pozik etxên artu ementzôn.*

*Andi auêrea ondo bizi ize'ementzien.*

*Oi ala bazan, sartu deilla kalabazan.*

---

(Contado en 1922 por María DE BARANDIARÁN, de Atáun)  
- O.C., 2, ps. 301-305, L.G.E.V. - Retana - Bilbao, 1973.

(CANILLO EL PESCADOR Y CANILLO EL CHICO)

Traducido

JOSÉ MIGUEL BARANDIARÁN

Como muchos otros en el mundo, en un pueblo vivía un pescador que tenía por nombre Canillo.

Un día que pescaba en el mar sacó un besugo.

El besugo le dijo que le dejase en libertad. Pero Canillo no lo quería soltar.

Entonces el besugo le dijo: *si me dejas libre, te enriqueceré.*

Echó de nuevo al mar a ese besugo. Y después se hizo muy rico.

Pero luego consumió todos los bienes y se vio precisado a dedicarse de nuevo a la pesca.

Otra vez sacó el besugo anterior. Y ese besugo le dijo: *Si me das el primer ser que te salga al camino cuando estés hoy de vuelta a casa, te enriqueceré mucho.*

Todos los días le salía al camino un perrito, y (juzgando) que, de to dos modos, no era gran cosa, se lo prometió.

Aquel día se le hizo más tarde que otras veces, y aun en casa habían notado la tardanza.

Por eso, en lugar de salirle el perro, le salió su hijo *Canillo el pequeño.*

Luego se enriqueció Canillo; pero tuvo que enviar para siempre a su hijo a una casa negra que había allá en lejana orilla marítima; pues aquella casa era la casa del besugo. En aquella casa vivía un diablo que se apareció a Canillo en figura de besugo.

Allí se quedó Canillo el pequeño, bajo el dominio del diablo, resignado a no tener jamás derecho a salir de allí.

Una noche, yendo a su camastro, metió, sin duda, más ruido de lo calculado, y el diablo le dijo a gritos que si otra vez no se estaba quieto, lo lanzaría al mar.

Y así lo hizo. Otra noche en que (Canillo el pequeño) produjo con la puerta u (otro objeto) algo de ruido, ese diablo lo cogió y lo lanzó lejos al mar.

Nadando, nadando, arribó afortunadamente a la costa hacia el amanecer.

Allá vio un león, una paloma y una hormiga, que tenían delante una yegua muerta.

En cuanto vieron a Canillo el pequeño, se le dirigieron los tres a gritos: *¡hombre, hombre! ven acá.*

Se les acercó, pues, y les preguntó qué necesitaban,

*-Hace tres días que andamos aquí sin poder partir entre nosotros, de modo equitativo, esta yegua vieja, y a ver si tú nos la partes -le contestaron.*

*-Tanto como eso os lo haré cuando menos,*

*Y al león le adjudicó todas las carnes; a la paloma a su vez, las entrañas; y a la hormiga los huesos con su médula.*

Los tres quedaron muy satisfechos, y Canillo el pequeño se separó luego.

De allí a poco se les ocurrió a los tres que habiéndoles hecho aquel hombre tan satisfactoria partición, ellos no le habían dado nada.

*-¡Hombre, hombre! ven acá -le gritaron.*

Otra vez se les acercó Canillo el pequeño a ver qué tenían, y el león le dijo: *nos has hecho tan buena partición y nosotros no te hemos dado nada. Por lo tanto yo te daré una cosa. He aquí: cada vez que digas LE-GOI, te convertirás en león.*

Entonces le dijo la paloma: *cada vez que digas USO (paloma), te convertirás en paloma.*

También la hormiga le dijo: *cada vez que digas TXINGURÍ (hormiga), te convertirás en hormiga; mas para eso me has de arrancar un fragmento de mi espalda.*

Le arrancó, pues, a la hormiga ese fragmento, y habiendo dado las gracias a los tres, se marchó Canillo el pequeño, Y después, habiendo dicho Uso (paloma), se fue, convertido en paloma al nogal próximo a aquella casa negra del diablo.

Sentado delante de su casa, se hallaba tomando sol el diablo. Y la criada le estaba aseando y peinando la cabeza.

Al ver la paloma, le dijo la criada: *¡qué hermosa paloma!*

*Como tú -le contestó el diablo.*

*-Tú pareces inmortal. ¿Cómo podrías tú perder la vida?*

*-En Ipáráremendi (monte de Iparrarre) vive mi hermano. En su vientre hay una liebre; en el vientre de esa liebre una paloma; y en el vientre de esta paloma, un huevo. El que me baya de matar a mí, debería herirme en la frente con ese huevo.*

Al oír esto, Canillo el pequeño voló a Ipáráremendi.

En las proximidades de aquella montaña vio una casa, y habiendo llamado en ella, preguntó si le recibirían de criado.

Le contestaron que, sí, se quedara, pues necesitaban a uno para pastoreo de ovejas.

A la mañana siguiente el amo le envió de pastor de ovejas. Pero le advirtió no llevase oveja a Iparáfremendi, pues de otro modo un diablo de allí mataría todas las ovejas.

Con todo, Canillo el pequeño se fue a Iparáfremendi con sus ovejas.

A eso de las once, el diablo se presentó en figura de hombre.

Diciendo LEGOI (león), se convirtió en león, Canillo el pequeño, y empezó a luchar con el diablo.

Ni uno ni otro conseguía vencer.

*-¡Ah, si estuviera aquí mi hermano!* -decía el diablo.

*-Ah, si tuviera en la boca el panecillo que cuecen en mi casa a las once de la mañana.* -exclamó Canillo el pequeño.

Cuando se hubieron cansado de luchar, cada uno se marchó por su lado.

Las ovejas comieron más que nunca; pues como no iba allá ninguna oveja, había pasto abundante y sabroso.

El amo se extrañó mucho al ver las ovejas tan repletas.

En el segundo día Canillo el pequeño se dirigió también con sus ovejas a Iparáfremendi.

La criada de casa iba más atrás a observarle, queriendo averiguar, sin duda, qué hacía Canillo el pequeño.

A eso de las once apareció el diablo.

En diciendo LEGOI (león) y convertido en león, Canillo el pequeño arremetió a ese diablo.

No se vencían.

*-¡Ah, si estuviera aquí mi hermano!* -decía el diablo.

*-Ah, si tuviera en la boca el panecillo que cuecen en mi casa a las once de la mañana!* -decía Canillo el pequeño.

Como la criada estaba atisbándoles por detrás de un zarzal próximo, les oyó lo que decían.

Cuando se hubieron cansado, se desasieron, y cada cual se fue por su lado.

También en el tercer día Canillo el pequeño llevó sus ovejas a Iparáfremendi.



También la criada, como en la vez anterior, seguía detrás. Y llevaba un panecillo, por si era preciso.

A las once apareció el diablo.

Le arremetió Canillo el pequeño convertido en león.

Mas tampoco entonces vencía ninguno.

*-Ah, si estuviera aquí mi hermano!* -exclamaba el diablo.

*-Ah, si tuviera en la boca el panecillo que cuecen en mi casa a las once de la mañana-* (decía), el otro.

Entonces la criada le lanzó el panecillo desde el sitio en que se hallaba tras el zarzal.

Con aquel panecillo se reanimó mucho Canillo el pequeño, y luego derribando al suelo al diablo, lo venció.

También le quitó la vida y le abrió el vientre. Allí estaba la liebre. Abrióle también a ella el vientre, y allí apareció la paloma. También a la paloma le registró el interior. Y allí encontró un huevo pequeño.

Cuando tomó ese huevo, se fue, convertido en paloma al nogal próximo a la casa del diablo del mar. Allí, transformado en hormiga, se puso a aguardar.

De allí a poco salió de casa el diablo. Y echado a la sombra del nogal se puso a dormir.

Entonces Canillo el pequeño descendió y, convertido en hombre, apedreó con el huevo al diablo en el centro de la frente.

El diablo quedó muerto.

Cuando Canillo el pequeño se vio libre, se marchó presto de allí.

Yendo a su pueblo, preguntó dónde vivía Canillo el pescador.

Le contestaron que vivía en tal casa; pero que no le llamase Canillo, porque, desde que se hizo rico, no gustaba de ese nombre.

Se dirige, pues, a esa casa, llama a la puerta, y le sale el mismo Canillo.

*-¿Eres tú Canillo?* -le preguntó.

Cuando oyó tal nombre, Canillo le presentó frente oscura y no le contestó palabra.

*-¿No te acuerdas de cómo me enviaste a la casa negra del diablo?*

Entonces Canillo reconoció a su hijo y le recibió gozoso en casa.

En adelante vivieron bien.

*Si eso ocurrió así, métase en calabaza.*

## ETSAI ZAARRA TA MENDIKO LEOIA

ARRATIBEL JOXEK

Berararengandik Jasoa

Bein bizi omen zan erri batean, famili bat oso beartsua. Aita amak eta semea, *irurak* bakarrik ziran. *Lur* gutxi zuten eta orregatik bizi ziran estu estu.

### MORROI

Motilla aspertu zan orrela bizitzen, eta noabait *juatea* erabaki zuan. Ta baita juan ere.

Goiz batean, iñori ezer esan gabe, artu zuan *pardeltxo* bat, bear bearezko jantzi batzuek an zituala, ta bideak aurrera abiatu zan, noa zijoanik ere jakin gabe. Etxetik ateratzekoan amari esan zion:

-Ni banoa emendik, ama.

Noa umea? -erantzun zion amak erdi negarrez.

-Ez dakit, baño nolana ere emen aiñean izango al naiz. Uste det laister azalduko naizela berriz.

-Alan izan dedilla, -erantzun zion amak. Eta orrela bata besteagandik apartatu ziran.

